

BIZIKLETA HIRIAN



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Tráfico



Aurkezpena

Zergatik erabili bizikleta hirian?

Hainbat erantzun ditu galdera honek, baina hiru dira, nagusiki, hiriguneetan batetik bestera joateko bizikleta erabiltzeko arrazoiak eta horrek dakartzan onurak:

1 .- Ingurumena babestu. Motorrik ez duenez, ez du inolako energia motarik erretzen eta beraz, ez du inolako gas kutsatzailerik jaulkitzen atmosferara. Administrazio ezberdinek poluzio- mailak geldiarazteko ahaleginetan diharduten une historiko honetan, pedalak ematea da Kiotoko protokoloa betetzeko herritarrak duten aukerarik onena. Biziraupeneko helburu erabakigarri hori lortzeko beharrezkoa da denon ahalegina.

2 .-Hiria hobetu. Bizkaiko Foru Aldundiaren ikerketa baten arabera, 2002. urte hasieran 1.000 bizkaitarretatik batek bakarrik erabiltzen zuen bizikleta joan-etorrietarako. Egia esan, herritar gehienek autoa hartzen dute hirian ibiltzeko. Hainbeste ibilgailuren joan-etorriek hiriguneak kolapsatu egiten dituzte eta zaratatsuago eta kaltegarriago bihurtu. Bizikletan mugitzen diren biztanleak dituen hiria arinagoa eta arrazionalagoa da. Horren adibide, besteak beste: Amsterdam, Kopenhage, Edinburgo...

3 .-Gorputza zaindu. Alemaniako Kiroletako Goi-mailako Eskolak egin berri duen ikerketa baten arabera, erregulartasunez bizikletan ibiltzeak %50ean gutxitzen du miokardio infartua izateko arriskua. Egunero hamar minutuz pedalei emanez gero, odol-zirkulazioa hobetu egiten da eta muskulatura eta artikulazioak sendotu.

	Página
Sarrera. - Zergatik erabili bizikleta?	3
Lehen zatia. - Abiatu aurretik	7
1.- Bizikleta	7
1.1.- Zein bizikleta mota aukeratu?	7
1.2.- Bizikletaren zatiak.	8-9
1.3.- Derrigorrezko dispositiboak.	10
1.4.- Ordezko piezak eta mantenua.	10-11
1.5.- Pedal automatikoa.	11
2.- Jantzera edo ekipamendua	12
2.1.- Jantziak	12-13
2.2.- Kaskoa.	13
3.- Ibilbidea	14
4.- Txirrundulariaren jarrera eta jokabidea hiri barruan	15
4.1.- Egin behar dena	15
4.2.- Egin behar ez dena	15
Bigarren zatia. - Behin abiatuta gero	17
1.- Bidean sartu	17
2.- Nondik zirkulatu?	17-18
3.- Seinaleztapena	18
3.1.- Bizikletentzako bakarrik diren seinaleak	18-19
3.2.- Semaforoak	19
3.3.- Bide-markak	19-20
4.- Biribilguneak eta biraguneak	19-20

Aurkibidea

	Página
5.- Txirrindularientzako lehenetasuna	20-21
6.- Bide-une estuak	21
7.- Abiadura eta segurtasun-tartea	21
8.- Umeen garraioa	22
9.- Kontuz oinezkoekin	22
10.- Bizikleta hartuko baduzu, ez edan	22-23
11.- Txakurrak eta zuloak	23
Hirugarren zatia.- Iritsi gara	25
1.- Non apartatu?	25
2.- Giltzarrapoa	25
2.1.- Zein motatakoa erabili?	25-26
2.2.- Nola jarri giltzarrapoa bizikletari?	26
3.- Bestelako segurtasun neurriak	27
4.- Asegurua.	27
5.- Bizikleta ostu didate, zer egingo dut?	27
Laugarren zatia.- Instituzioen bultzada	29
1.- Sinergiak garraio publikoarekin	29
2.- Bide-gorriak egin	30
3.- Bizikleta-alokairua hirian	30-31
4.- Mugikortasunaren Asteko ekintzak	31
5.- Bestelako ekimenak	31
ERANSKINA.- Helbide eta telefono baliagarriak	32



Abiatu aurretik

LEHEN
ZATIA

Hirian bizikleta hartu aurretik, txirrundulariak zenbait gauza izan beharko ditu kontuan segurtasunari eta ekipamenduari dagokienez. Txirrundulari hasi berriek izaten dituzten zalantza ohikoenak argitzen saiatuko gara jarraian. Zein zela aukeratu, nola mantendu modu egokian, janzkera aproposena eta ibilbiderik egokiena aukeratzen lagunduko dugu kapitulu honetan.

1.-Bizikleta

1.1.- Zein bizikleta mota aukeratu?

Hiriguneak, bidez, espaloiz eta oinezkoentzako gunez josita daude. Zuloguneek, zintarriek, biribilguneek, lanek eta ibilbidean aurki daitezkeen gainontzeko elementuek egoera ezberdinetara egokitzen behartzen dute txirrundularia, zoruaren arabera, hain zuen. Hori dela eta, txirrundulari gehienek mendi-bizikletak edo lur orotakoak erabiltzen dituzte hiriko joan-etorrietarako.

Bere aldakortasunagatik eta zoladura aldakorretara nola egokitzen diren ikusita lasterketarako edo paseorako bizikletak baino egokiagoak dira. Mendiko bizikletak, gainera, badituzte beste abantaila batzuk: aurreko suspentsioa (zuloak daudenean egonkortasuna eta erosotasuna eskaintzen dute) eta hiritik kanpo mendian edota landa-eremuetan ere erabil daitezke.

Baina lur orotako bizikletak badituzte desabantaila batzuk ere: besteak baino pisu gehiago eta gurpil sendoagoak, aurrera egitea zailago egiten dutenak. Hala ere, hirietan ohikoenak eta seguruenak ere badira.



Irtenbidea

Jarri mendiko bizikletari gurpil-azal meheagoak (1,5 hazbetekoak dira lodiera gutxien dutenak). Azkarrago joango zara ez baita hainbeste itsatsiko asfaltoari.

1.2.- Bizikletaren zatiak.





Potentzia

Adarrak

Koadroa

Argia

Esekidura

Aurreko balazta

Pedala

Manibela

Erradioak

Abatza



Islatzaileak ezinbestekoak dira non gauden adierazteko.

1.3.- Derrigorrezko dispositiboak:

Zirkulazio kodeak gutxieneko segurtasun elementuak ezarri ditu txirrindulariek derrigorrez eraman beharrekoak. Oso garrantzitsua da zeintzuk diren jakitea.

- **Balazta-sistema.-** Bi gurpilak blokeatuko ditu eta ezin hobe mantendu beharko da. Berebiziko garrantzia du, bizikletaren segurtasun neurririk eraginkorrena baita.
- **Argiak.-** Eguraldiaren edo ingurugiroaren eraginez ikuspena nabarmen gutxitzen duten egoerak gertatzen direnean, eguzkia sartzen denetik irten arteko orduetan eta “tunel” seinalea duten bide-guneetatik zirkulatzerakoan, txirrindulariak aurreko eta atzeko argiak piztuta dituela zirkulatu beharko du hirian. Derrigorrezkoa da –egunez ere- atzeko katadioptriko gorria –ez da triangeluarra izango-. Erradioetako eta pedaletako islatzaile horiak aukerakoak dira. Neurri hauetaz gain, Trafikoko lege berriak txirrindularia derrigortzen du, bakarrik hiriarteko bideetan, jantzi islatzaile berezia -txalekoa izan daiteke- eramatera, 150 metro lehenagotik ikusteko modukoa.
- **Ohartarazteko gailu akustikoa.-** Ohiko txirrinak balioko du non gauden adierazteko oinezkoei eta gidariei. Hiriko zaraten artean ahotsa galtzen da eta antzinako turuta ez dago baimenduta.

Oharra: Dinamoa da argiztapen sistemarik ekologikoen, baina ez dabil txirrindularia geldi badago. Gomendatzen dena da dinamoa bateriadun beste dispositibo batekin batera erabiltzea.

1.4.- Ordezko piezak eta mantenua

Zulaketa da bizikletetan matxurarik ohikoena. Hura gertatuz gero, segurtasunagatik egin behar duzun lehenengo da lehenbailehen irten bidetik eta matxura konpondu leku lasai batean, espaloian joan-etorri gutxieneko tokian, ahal bada. Gurpila konpontzeko honakoak beharko dituzu:

- **Giltzak-** Kako txiki bi dira gurpil-azalaren barruko ganbera atera ahal izateko. Metalezkoak dira gehien irauten dutenak, eta plastikozkoak baino merkeagoak eta ekologikoagoak dira.
- **Partxeak eta ganbera.-** Bulkanizatutako zati txiki horiekin zuloa estali ahal izango duzu, aire gehiagok ihes egin ez dezan. Matxura handia bada edo den-



Bila ezazu toki lasaia matxurak konpontzeko.

bora gehiegi ez galtzeko, ganbera aldatzea gomendatzen da eta aire-ihesak etxean konpondu lasaitasun gehiagorekin.

- **Puzgailua.**- Aurreko tresnak alferrikakoak dira puzgailua eramaten ez badugu. Gurpilen aire-ganberetan airea sartzeko erabiltzen dira. Gurpiletako presio egokiak matxura asko eta balizko istripuak saihesten ditu. Jarrai itzazu fabrikatzailearen gomendioak.

Bizikleta behar bezala mantenduz gero, batez ere zati sentikorrenak, seguruago ibiliko gara. Gomak ez ezik, direkzioa ere sarri aztertuko dugu (kolperik ez duela jaso begiratu), baita gurpilen itxidurak eta balaztak ere (kableen tentsioa ziurtatu eta zapatak aldatu higituta badaude). Martxak eta errodamenduak koipeztatzea ere komeni da sei hilabetez behin, eta astero koipea botatzea kateari, batez ere euria egin badu.



Irtenbidea

Bizikleta, urtean gutxienez hirutan, mekanikoarengana eramatea gomendatzen dute adituek. Behin, goitik behera aztertzeko, eta beste bitan, zatikako ikuskapenarako. Behar bezala mantenduz, bizikleta luzarorako izango duzu.

1.5.- Pedal automatikoa.

Pedala zapatilara lotzen duen dispositiboa da. Txirindulari hasiberrietan segurtasun eza sortzen du sarritan: urradurak, erorketak, belauneko minak... Bizikletan ez bazara sekula ibili, hobe pedal normalak aukeratzea eta oin-puntakoa ezarri, pedalei indar handiagoz eragiteko segurtasuna galdu gabe.



Hauek dira oinarritzko ordeko piezak: bonba, desmuntagarriak, partxeak eta ganbara.

Mantenua segurtasunaren gakoa da.



Irtenbidea

Automatikoak erabiltzen badituzu, gelditu aurretik oina atera, ahal dela, ezkerrekoa. Horrela, oreka galduz gero ez zara eroriko galtzadaren alde arriskutsuenera.



Babes bereziko bermudak.

2.- Jantzkeria

2.1.- Jantziak

Hirietan bizikleta hartzen duten gehienek lanera edo ikastera joateko erabiltzen dute. Horrela bada, txirrindulari bakoitzak bere egoeretan egokituko ditu jantziak: egin beharreko ibilbidea, dutzak edo aldagelak aukeran baditu, kideek onartzea...

Egoera hobezina litzateke heldu beharreko tokira iritsi eta garbitzeko eta arropak aldatzeko aukera izatea. Horrela, bizikletan ibiltzeko arropa aproposagoa eramango genuke, txirrindulariari dagokiona, hain zuzen. Edozelan ere, kontuan izango ditugu elementu hauek:

- **Galtzak.-** Ardi-larruz sendotutakoak gomendatzen dira. Hasiberriak ez ditu axubeta gogaikaririk izango eta ibilbide luzeak egin ahal izango ditugu. Ez dute zertan izan behar ohiko kulotak. Bermudak eta galtza luze sendoak ere badaude. Ohiko jantziak erabiliz gero, adi ibili galtzaren eskuineko hanka plaitoetan kateatu ez dadin. Galtzetina igoz edota goma bat erabiliz ez dituzu galtzak koipez zikinduko eta ezustekorik ez duzu hartuko. Galtza bakeroak ez dira gomendatzen.



Goanteak segurtasun elementu inportanteak dira.

- **Betaurrekoak eta eskularruak.-** Gomendatzen diren segurtasun-elementuak dira. Neguan, kristal neutrodun lenteak (ez ilunak) txirrindulariaren ikuspena hobetu egiten dute eguraldi ona ez denean. Oso egun argitsuetan, eguzkitarakoak eraman daitezke. Eskularruei dagokienez, bigunak direnez babestu egiten gaituzte erortzen bagara eta gainera, lurzoruak sortutako bibrazioak xurgatu egiten dituzte.

- **Oinetakoak.-** Malguak izango dira. Kontuz lokarriekin. Behar bezala lotu ezik katearekin korapilatu daitezke.

- **Motxila.-** Liburuak, agiriak edota arropa eramateko modurik aproposena. Ez dadila izan pisutsu edo

handiegia (hiri-altzarietan kateatu daiteke). Zakutoak ere eraman ditzakezu, baina beti ere, atzetik 25 zentimetro eta alboetatik metro erdi irteten ez badira. Edozein mugimendutarako askatasun gehiago emango dizu.

- **Bestelako gehigarriak.-** Botilatxoa hidratatzeko eta zira hotza eta euria egiten duenerako. Barruko kamiseta sintetikoak erabili, kotoizkoekin baino lehorrago egongo baitzara.



Irtenbidea

Gerrian sekula ez lotu jantzirik. Azkenean, atzeko gupileko erradioetan sartuko da eta erori egingo zara.

Irtenbidea: Arropa transpiragarria erabili eta eskura izan beti izerdia lehertzeko zapitxoa. Diskrezio osoz egin dezakezu edozein lababotan.

2.2.- Kaskoa.

Kaskoa eramatea hiriarteko bideetan derrigorrezkoa da eta aukerakoa hirian, baina nonahi eramatea beti da komenigarria. Izan ere, bizia salba dezakezu istripua izanez gero eta, txirindularien artean kontrako iritziak badaude ere, teknikoki frogatuta dago ez duela bero gehiago ematen aireztapen-sistema egokia baldin badu.

Are gehiago, eguzki-erradioetatik babesteko tresna egokia izan daiteke. Buruan pirata-zapia ipintzea segurtasun-elementu horren osagarri ona izan daiteke, izerdia xurgatu, azkurak saihestu eta kaskoa txirindulariaren burura behar bezala egokitzen laguntzen baitu.

Gogoratu ondo estututa eraman behar duzula. Izan ere, kaskoa behar bezala estutu gabe erortzen bazara, min handia har dezakezu. Behar bezala daramazula ziurtatu nahi baduzu, astindu burua. Kaskoa mugitzen ez bada, ondo jarrita daramazu.

Homologatutako babesgarriak erosi beti, ohikoena Europako Batasuneko da (CE zeinua daramate), baina badira beste batzuk ere, Snell edo Ansi esaterako. Zalantzarik izanez gero, zure konfiantzazko dendariarekin kontsultatu.



Motxila txikia oso lagungarria da.



Bizikleta bizitzeko modua da eta kaskoa babesteko modua.

3.- Ibilbidea



Bilatu bide seguruena.

Ibilbiderik seguruena aukeratzea izango da hirian dabilen txirrindulariaren araua. Eta, ez du zalantzarik eduki-ko ibilbidea luzeago bat aukeratzean, bi gurpilen gainean egindako edozein joan-etorrik duen arriskua horrela gutxitzen badu. Izan ere, eragozpenak ez dira berdinak kale guztietan ez eta horietan dabilen jende kopurua ere.

Lehentasun hurrenkeraren arabera, aukeratu beharreko bideak:

- **Bide-gorriak edo bizikleta-bideak.** Erabili itzazu ahal duzun guztietan. Txirrindulariek baino ezin dituzte erabili.
- **Bigarren mailako kaleak, norabide bakarrek-ak eta bi erreitakoak.** Ibilgailu gutxi ibiltzen dira. Autoek erraz aurreratu zaitzakete arriskurik gabe.
- **Bigarren mailako galtzadak, norabide bakoitzeko errei bakarra dutenak.** Arazo gehiago sortzen dituzte, baina hala ere, nolabait seguruak dira.
- **Bide nagusiak, norabide bakoitzeko errei bat baino gehiago dituztenak.** Autoek daramaten abiadura handia da bide hauetako arazoa.
- **Oinezkoentzako guneak.** Gogoratu galtzada hauetan oinez joan beharko duzula bizikleta eskuan daramazula, seinaleek kontrakoa agintzen ez badute behintzat. Batzuetan, egin beharreko ibilbidea murriztu dezakete oinez.
- **Bide nagusiak, norabide bakoitzeko errei bakarra dutenak.** Ez dira bat ere gomendatzen. Aurreratzea maniobra arriskutsua bihurtzen da.
- **Biribilguneak edo glorietak.** Gune gatazkatsuenak dira eta ahal bada, behintzat, ez ditugu igaroko. Nahi izanez gero, bizikletatik jaitsi (oinezko bihurtzen zara) eta lurpeko pasabideak edota oinezkoenak gurutzatu ditzakezu.

Oso garrantzitsua: Europako hiri askotan egin badaiten ere, Estatu espainiarrean debekatuta dago kontrako norabidean bizikletaz ibiltzea edozein kaletan.



Bizikletaz lehenbizikoz joaten bazara lantokira edo ikastetxera, bezperan oinez egin dezakezu ibilbidea oztopoez edota balizko zirkulazio arazoez ohartzeko.

4.- Jarrera eta jokabidea.

4.1.- Egin behar dena

- Jarrera positiboa izan abian jarri aurretik eta abiatu eta gero, ezarritako zirkulazio arau guztiak errespetatuz. Gogoratu errespetatuak izan nahi badugu modurik onena zirkulazio kodea zorrotz betetzea dela, hiriko bideetako erabiltzaile duinak garela erakutsiz. Jarrera desegoki bat erakutsi nahi baduzu gidariei ez eman oinarririk gabeko aitzakiarik.
- Ahal den neurrian, erraztu itzazu gainontzeko gidarien, txirrindularien edo oinezkoen maniobrak. Gertaerei aurrea hartu, nahi ez diren istripuak saihesteko modurik onena baita.
- Goza ezazu bizikletarekin hiriko gunegunetuan. Erlaxatu zaituz eta gutxitu abiadura, kontzentrazioa galdu gabe baina. Bide-zati konplikatuenean, gehitu erritmoa eta tentsioa arriskuaren eraginpean ahalik eta denbora gutxien egoteko.
- Gauzez eta eguraldi txarrekin arreta areagotu.
- Bila ezazu ibilbide bera egiten duen kideren bat. Beste batekin joateak segurtasuna areagotzen du, beti ere elkarrizketak saihesten badira eta arreta beste kontu batzuetan jartzen ez bada.

4.2.- Egin behar ez dena

- Nahiz eta arrazoia izan, gidarien jarrera gaitzetsi edo haiek iraindu modu txarrean. Bideetako erabiltzaileen artean txirrindulariak dira kalte gehiago jaso ditzaizketenak, edozein erasok ondorio konponezinak eragin ditzake. Gorputza da gure karrozeria bakarra.
- Errepidera beldurrez irten. Errespetuz eta arretaz ibili behar da bizikletan baina sekula ez urduri. Beldur bazara hobe bizikletatik jaitzi.
- Ez azeleratu bost minutu lehenago iritsi nahian. Edozein ezbehar edo oztoporen aurrean arazorik gabe gelditzeko besteko abiadura eraman beti.
- Aurikularrak eramatea. Debeku zehatza da. Alegia, errepidean bost zentzumenak jarri behar dituzu. Bizikletan zoazela sakelako telefonoa ere ezin da erabili.



Oinezkoa errespetatu.



Kaskoak bizia salba zaitzake.



Behin abiaraziz gero

**BIGARREN
ZATIA**

Bizikleta prest dago eta ekipoa aztertu dugu. Jantzi egokiak daramatzagu eta buruan egin beharreko ibilbidea. Iritsi da, beraz, errepidera irteteko ordua. Gogoratu zirkulazio kodeko arau guztiak bete behar dituzula. Gidabaimenik ez baduzu, ondo legoke arauak berrikus-tea. Jarraian duzu txirrindulariei dagozkien artikuluen berri.

1.-Bidean sartu

Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorrek ezartzen duenez, edozein ibilgailuk bidean sartzerakoan segurtasun baldintza batzuk izango ditu kontuan. Horrek esan nahi du, galtzadan sartzeak ez diola inori arriskurik sortuko.

Horretarako, txirrindulariak kontuan hartuko du gainontzeko ibilgailuen distantzia eta abiadura. Zentzuzkoena da ikuspen handiko bide-tarte zuzen batean bizikleta martxan jartzea.



Irtenbidea

Stop seinale baten aurrean edo beste arrazoirengatik gelditzen bazara, ezarri garpen eroso bat, berriz ere aise abiarazteko.

Horrela bada, plater handia sartuta duzula ez jarri martxan, pedalei eraginda ere motel abiatuko zara eta, zeure burua arriskuan jarritz.

2.- Nondik ibili?

Gogoratu, ahal den neurrian txirrindulariek derrigortuta daudela bide-gorrietatik ibiltzera. Halakorik ezean, galtzada arrunta hartu behar badu, eskuineko erreitik zirkulatuko du beti, bigarren ilaran aparkatutako beste ibilgailu batzuk aurreratu behar dituzenean izan ezik.

Hiriarteko bideetan, txirrindulariak bazterbidea erabiliko du. Hala ere, hirian ez dago bazterbiderik, beraz, hiri barruan bizikletan doazenak erretekin joan daiteke. Horrela ez da inolako araurik hautsiko, txirrindularia beste ibilgailu bat baita. Gure eskubidea da.



Errailaren erditik joan daiteke.

Kontuz aparkatutako autoekin.

Gainera, errepidearen eskuineko aldetik zirkulatzea arriskutsuagoa izan daiteke, galtzadaren bazterretik doan txirindularia aurreratua izan daiteke eta; baita kale estuetan ere. Galtzadaren eskuin aldean zirkulatzea gomendatzen da baldin eta autoek, arriskurik sortu gabe, aurreratzeko besteko zabalera badu galtzadak, eta beti ere, legeak ezartzen duen 1,5 metroko tartea errespetatzen bada.

Ikuspen oneko bide-tarteetan onartuta dago bi txirindularik paraleloan zirkulatzea.

Kontuz: Istripurik ohikoenetako bat izaten da (erortze larrien % 12 gutxi gora behera) irekita dauden ibilgailuetako ateen kontrako talka. Trafikoko lege berria indarrean sartu denetik, gidariak edo kopilotuak ziurtatu egin beharko dute ibilgailutik irteterakoan ez dutela arriskuan jartzen etor daitekeen txirindularirik. Hala ere, arreta areagotu behar da eskuin aldean alboratuta zirkulatuz gero.



3.- Seinaleztapena

3.1.- Txirindularientzako bakarrik diren seinaleak

SEINALE HAUEN AZALPENA



Berezita dagoen bide-gorria. Bertatik ibiltzea derrigorrezkoa da.



Txirindulariak egotea edo beraientzat den pasagunera hurbiltzea..



Bizikletarik ez.



Bide-gorria.
Beste ibilgailurik ez.



Bide-gorriaren amaiera.



Txirrindulari eta oinezkoentzako bidea. Kontuz oinezkoekin.

3.2.- Semaforoak

Badira txirrindularientzako bakarrik diren semaforoak, bizikleten silueta argitsuak dituztenak. Oro har, bide-gorriek eta bestelako bideek bat egiten duten tokietan daude jarrita. Horrelakoetan, oinezkoen jarraibidea izango dute txirrindulariek ere. Hala ere, haiek erabiliko dute oinezkoen pasabidea eta txirrindulariek, berriz, galtzadaren gaineko zeharkako lerro etenak mugatzen dutena.

Ohiko semaforoetan, gorri dagoen batera heltzerakoan, txirrindulariak zuhertasunez jokatu du. Zuzenena litzateke berde jarri arte itxarotea, geldituta dauden ibilgailuak aurreratu gabe. Bestela, aurrekoa egin ezean, gerta liteke ibilgailu baten bidaiariak atea irekitzea ezustean eta arazoak sortzea. Halaber, ibilgailuen ilara guztia aurreratu aurretik semaforoa berde jar daiteke eta ibilgailuak martxan jarri, ezbeharren bat eraginez. Pazientzia, beraz.



3.3.- Bide-markak

Bizikleten ibilbideak mugatzeko zoladuran bizikleta baten irudia margotzen da. Eta, era berean, Trafikoko Lege berria indarrean sartu denetik, udaletxeek taxi edo autobus-errei batzuk gorde ditzakete bizikletak bakarrik ibiltzeko. Horrelakoetan, "Bizikletak bakarrik" adieraziko dute.

4.-Biraguneak eta biribilguneak

Bizikletek ez daukate keinukaririk maniobrak adierazteko. Horregatik, besoak erabiliko ditugu gainontzeko ibilgailuei adierazteko zer egiteko asmoa dugun.



Aldez aurretik adierazi.

Ezkerrera joan nahi ezkerre erreia edo martxaren nora-koa aldatzeko, ezkerreko besoa luzatu behar duzu, esku-ahurra behera begira dagoela. Eskuinera joan nahi baduzu, berriz, jaso ezkerreko besoa ukondoarekin “L” bat osatuz edota sorbaldarekin 90° angelua adieraziz. Eskuineko besoa ere erabil dezakezu baina gutxiago ikusiko da.

Aldez aurretik adierazi beharko duzu baina seinaleztapena ez du iraun behar maniobra amaitu arte, horretarako manillarrean bi eskuak behar dituzu eta.

Edozein oztopo edo arriskuren berri ere eman dezakezu. Horrelakoetan, ahurra erakutsi eta astindu abiadura gutxitu dezaten.

Trafikoko lege berria indarrean sartu denez gero, hiri barruko tarte baten ezkerre hartzten duzunean edozein ibilgailu legez joka dezakezu. Ez da zertan galtzadaren eskuin aldera zabaldu behar norabide aldaketa burutzeko. Baina kontuz, zeren arau berri honek hirian bakarrik du indarra.



Irtenbidea

Maniobrak adierazterakoan, utzi pedalei eragiteari. Oreka mantentzeko modua da, zeren egonkortasuna galtzen baita manillarretik esku bat kenduz gero.

5.-Txirrindularientzako lehenetasuna

Bide-gorrietan, txirrindularientzako pasaguneetan edo seinalez adierazitako bazterbideetan bizikletak beti du lehenetasuna motordun ibilgailuen aurrean.

Era berean, lege berriaren arabera, txirrindulariak lehenetasuna du bidegurutze baten jiro egiten duten ibilgailuen aurrean ere. Arau orokor bezala, ibilgailua sartzera doan bidetik zirkulatzen duen txirrindulari bati ezin zaio bidea moztu.

Gurutzaguneetan seinaleek adieraziko dute nork duen lehenetasuna. Halakorik ezean, arau orokorra hartuko da kontuan: “Eskuinetik zirkulatzen ari den ibilgailuak du pasatzeko lehenetasuna”

Taldean joanez gero, arauk ibilgailu bakartzat jotzen dute taldea. Beraz, biribilgunean edo bidegurutzean sartzera-

an lehenasuna izango dute taldea osatzen duten txirrindulari guztiek, binaka joan beharko dutelarik.

6.- Bide-une estuak

Lanagatik edo trafikoko beste edozein gorabeheragatik, galtzada batean ezinezkoa bada bi ibilgailu gurutzatzea, txirrindulariek ibilgailuei pasatzen utzi beharko die, baldin eta poliziaren batek edota lanetako arduradunen batek kontrakoa esaten ez badu.



Autoek aurreratzean gutxienez 1,5 metrotako tartea utzi behar dute.

7.- Abiadura eta segurtasun-tartea

Zirkulazio kode zaharrear txirrindulariek debekatuta zuten orduko 45 km-tik gorako abiadurarekin zirkulatzeari. Gaur egun, arau horrek ez du indarririk eta txirrindulariek abiadura hori gainditu dezakete, beti ere zirkulatzeko ari diren bideak onartzen badu, arau orokor bezala. Hala ere, herri barruan edo hirian ibilgailuek ezin dute gainditu 50 km/h abiadura. Nahiz eta hori izan legeak ezarritako muga, gomendagarria da neurrizko abiadura eramatea, segurtasun baldintzetan gelditzea utziko diguna.

Bestalde, txirrindulariak segurtasuneko gutxienerako tartea utzi beharko du aurretik duen ibilgailuarekiko. Bizikletak daraman abiaduraren arabera tartea areagotu egin beharko da. Txirrindularien atzetik doazen ibilgailuek ere zuhurtziatzeko tartea gorde beharko dute, batez ere aurreratzeke maniobretan. Horrelakoetan, ibilgailuek derrigorrez utzi beharko dute 1,5 metroko tartea.



8.- Umeen garraioa

Trafikoko lege berriak onartzen du 7 urte bitarteko umea eramatea homologatutako eserleku gehigarri batean, beti ere txirrindularia adinez nagusia bada. Umea eramanez gero, oso garrantzitsua da behar bezala babestea. Esaterako, kaskoa nahitaezkoa da. Neurriak hartu eta kontuan izan umeak direla kalte gehien jaso ditzaketenak, txirrindulariak berak baino gehiago.

9.- Kontuz oinezkoekin

Errespetatu itzazu beti oinezkoentzako pasaguneak. Utzi pasatzen oinezkoei. Hiriko joan-etorrietako katearen engranaje zaurgarrietakoa ere badira. Gogoratu gainera, oinezkoentzako baino ez diren guneetan txirrindulariek debekatuta dutela ibiltzea.

Bestalde, txirrindulari elkarteek egiten duten kritikarik ohikoena da oinezkoek gero eta gehiago erabiltzen dituztela bide-gorriak. Nahiz eta debekatuta egon, oinezkoek lasai asko erabiltzen dituzte paseatzeko bizikletentzako baino ez diren bide-gorriak. Pazientzia izan eta nahiko denborarekin ohartaraziko zaie gure presentziaz. Ahal izanez gero, gelditu eta modu atseginez azalduko eta ulertaraziko zaizkie bide-gorriak txirrindularientzako baino ez direla. Gizabidez jokatu behar da.



10.- Bizikleta hartu behar baduzu, ez edan

Oinezkoak ezin dira ibili bide-gorrietan.

Alkohola da edozein gidariren etsairik handiena. Eta txirrindularien kasuan areagotu egiten da pedalei eragiteak eskatzen duen esfortzu fisikoa dela-eta. Gogoratu: Bizikleta hartzen baduzu, ez edan. Gainera, zirkulazio kode berriaren arabera, Ertzaintzak txirrindularia geldiarazi dezake alkoholemia frogatu egiteko.

Positibo emanez gero (odolean 0,5gr/l tasa orokorra aplikatuko da), bidezainek salaketa jarri eta bizikleta kenduko dizute, edan ez duen baten esku utzi arte. Edanda bazoaz, ez igo bizikletara.

Arrazoi horiek substantzia psikotropikoak hartzeari dagokionean ere balio dute. Halaber, botikak hartuz

gero, kontsultatu medikuarekin haien balizko eraginak, batez ere logura eragin badezakete.

11.-Txakurrak eta zuloak

Gizakiaren lagunik onena txirrindulariaren etsairik handienetarikoa bat ere bada. Haserre dagoen txakur baten aurrean, ez jarri urduri. Zaindu inguruko autoak eta txakurrari ihes egin, beti ere, norberaren burua edota gaintzeko gidariena arriskuan jartzen ez bada. Argi ez baduzu, hobe bidea jarraitzea, azkenean txakurrak alde egingo du eta, seguruenik.

Berdin jokatu behar dugu errepidean zuloren bat edo bestelako oztoporen bat aurkituz gero. Onena da gainetik pasatzea manilarrari gogor eutsiz eta gorputza arintzeko posturan jarriz (besoak bilduta eta oinak pedalen gainean).



Hiriaz gozatu!.



¡Kontuz txakurrak!.



Irtenbidea

Badira txakurren aurkako alarmak eta ultrafrequentziakin darabiltzan beste tresna batzuk, nahiz eta txirrindulari elkarrekin zalantzan jarri dituzten horien balioa. Batzuk txirrina jotzen dute ozenki edota atzeko gurgila gelditu txakurrak uxatzeko. Beti ez da nahikoa izaten.



Iritsi eta gero

HIRUGARREN
ZATIA

Askok ez dute bizikleta hartzen kalean, parkean edo polikiroldegian utzitakoan ostuko dioten beldurrez. Eta egia da, Europako beste toki batzuekin alderatuta, gure herrietako espaloietan bizikleta gutxi ikusten dela apartatuta, eta horrek segurtasun ezaren ustea areagotu egiten duela.

Gaur egun, bakarrik Gasteizen aurki dezakegu bizikletentzako aparkaleku adimendunak deitutakoak. Mendizorrotzan dago eta “Biciberg” du izena. Bertan, bizikletak lurpeko konpartimentuetan gordetzen dira, lapurrek ez iristeko tokian, alegia. Bizikleta inork eraman ez dezan, hona hemen zenbait aholku:

1.- Non aparkatu?

Agintariek bizikletak aparkatzeko zehaztu dituzten tokietan utziko da, ahal bada. Bestela, ez oinezkoei ezta ibilgailuei ere trabarik egingo ez dion hiriko gune diskreturen batean.

Enkarguren bat egin behar denean, dendariei galdetu bizikleta dendan sar daitekeen ala ez. Denek ez dute baiezkoa emango, baina askok ez dute, seguru asko, eragozpenik jarriko.



Irtenbidea

Utzi bizikleta toki jendetsuetan. Ez utzi sekula eremu agerian, kale zuloetan edo patioetan. Erabili beti lapurreten aurkako babesen bat. Ez eman erraztasunik lapurrei.

2.-Giltzarrapoa

2.1.- Zein motatakoa erabili?

Lapurreten aurkako babesak hiru dira, nagusiki: itxigailu espirala, katea eta “U” erako giltzarrapoa.

Lehenengoa malgua da eta bizikletatik lapurtu daitezkeen elementu guztiak babesteko balio du: eserlekua, gurpilak eta koadroa. Abantailen artean, prezio eskurgarria, pisu gutxi eta erraz eramatekoa. Akatsen artean, nahiko erraz apur daitekeela.



Saia zaitetz bizikleta uzten horretarako gaitutako tokietan.

Kiribil itxurako
giltzarrapoa.



Katea.



'U' motako giltzarrapoa.

Saia zaitetz bizikleta
uzten horretarako
gaitutako tokietan.



Ohiko katea da eraginkorre-
na kate-mailen lodieraren
eta hura itxi eta osatzen
duen giltzarrapoaren ezau-
garrien arabera. Nahiko
merkea da, baina pisu asko
hartzten du. Bere luzeraren
arabera eserlekua eta gurpi-
lak ere lotu ditzakegu.

Altzairu indartuaz eginak
"U" erako itxigailuak dira,
txirringulari gehienentzat,
merkatuan dauden babes
tresna seguruenak.
Londresen eta

Amsterdamen lapurreten aurka gehien erabiltzen dena
da. Estatu espainiarrean gutxi erabiltzen dira, eta erabi-
li ere motozikletetan nagusiki. Desabantaila: pisua eta
prezio altua. Horretaz gain, ez du babesten eserlekua
ezta bigarren mailako beste zati batzuk ere. Koadroa,
aldiz, eraman ezina litzateke.



Irtenbidea

Bateratu giltzarrapo zurruna (katea edo "U"
erakoa) malguago batekin. Horrela, bizikle-
ta osoa babestuko duzu.

2.2.- Nola jarri giltzarrapoa bizikletari?

Modurik seguruena da atzeko gurpila, koadroa eta bizi-
kletak lotzeko dauden hiri-altzairua, denak batera lotzea
katearekin edo giltzarrapoarekin. Ezustekoren bat hartu
nahi ez baduzu, ez lotu sekula aurreko gurpila bakarrik.



3.- Bestelako segurtasun neurriak

Hiri barruko ibilbideetarako ez da beharrezkoa teknologia aurrerapen handiko ezaugarriak dituen bizikleta garesti bat. Bizikleta arruntak ez du lapurren atentzioa deituko.

Marka ezagunekoa den bizikleta erabiliz gero, markadierazleak ezabatu ditzakezu.

Joan den urtean, Bizkaian Ertzaintzak desegin zuen bizikletak enkarguz osten zituen talde bat.

4.- Asegurua

Lapurretak eta erantzukizun zibilar buruzko aseguruak ere kontratatu daitezke. Beste norbaiti sorrarazitako kalteak barne hartzen dituzten etxeko polizetan ere erantsi daitezke bizikleta lapurretak. Baita bizikletatik eroriz gero txirrindulariak berak jasandako lesioak edota oinezkoren bati eragindakoak sendatzeko medikuntza tratamenduak. Galdetu aseguru-etxean

5.- Bizikleta ostu didate, zer egingo dut?

Lehenbizi, salaketa jarri Ertzain-etxean eta konfiantza izan ertzainen jardunean. Bigarrenez, beste jakinarazi kartelen bidez edota txirrindulari-elkarteekin harremanetan jarriz. Bilboko Bizi Bizi (www.bizizbizi.org) eta Donostiako Kalapie (www.kalapie.org) elkarteek badute web guneetan bizikleta lapurretak salatzen atala. Gasteizen Bizikleteroak (www.pagina.de/bizikleteroak) elkartera jo dezakezu.

Kontu izan: Bizikleta guztiek dute bastidore zenbakia. Nolabaiteko matrikula da, ostutako bizikleta gurea dela frogatzeko balioko diguna. Pedalier-kaxaren azpian egoten da grabatuta. Idatz ezazu zenbaki hori, baliagarri izango zaizu. Era berean, www.registrodébicis.com web gunea ere ikus dezakezu. Ekimen aitzindaria da bizikleten erregistro nazionala ezartzeko eta bizikleta lapurreten kontra ekiteko.



Oinik gabe.



Erakundeetako ekimenak

LAUGARREN
ZATIA

1-Garraio publikoa

Joan nahi dugun tokira iristeko, beharbada beste garraio motaren bat ere erabili beharko dugu. Jarraian azaltzen dira bizikletak onartzen dituzten garraio publikoak.

- **Metro Bilbao.-** Txirrindulariek lehenengo eta azken bagoia erabil ditzakete. Ohiko bezeroek dute lehen-tasuna. Beraz, jende gehien dabilen ordu jakinetan ez hartu metroa, ahal dela. Gainontzeko bidaiariekin errespetua erakutsi. Bizikletak ez du txartelik ordaintzen.



Metroan, bizikletak lehenengo edo azken bagoian joan daitezke.

- **Renfe eta Euskotren.-** Hurbileko ibilbideetan onartzen dituzte bizikletak. Ez dute bidaia-txartelik ordaintzen.
- **Lineako autobusak.-** Ez dira onartzen leku eta segurtasun arazoengatik.
- **Taxiak.-** Oro har, ez dute onartzen bizikletak eramatea. Hala ere, zenbaitek laguntzen dute larrialdietan (matxurak, istripuak...). Hitz egitea da kontua.
- **Beste garraio mota batzuk.-** Funikularrek onartzen dituzte, zerbait gehiago ordaindu behar bada ere. Berdin Portugaleteko Zubi Esekian.



Irtenbidea

Ibilbide luzeak egiteko eta bizi garen leku-tik urruti dauden herrietara iristeko zentzuzkoa da bizikleta eta garraio publikoa erabiltzea.

2.- Bide-gorriak egin.

Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak bide-gorrien eta txirridularientzako hiri barruko zein hirien arteko bideen sare handia dute. Udalek, Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ahaleginak indartzen jarraitzen dute dauden tartearak elkartzeko. Esaterako, Bizkaiko Aldundiak 2010erako 360 kilometrotan handitu nahi ditu, dagoeneko dauden 52. Horretarako, 80 milioi euroko inbertsioa egingo du.



Bide-gorrien kilometroak gero eta gehiago dira.

3.- Bizikleta-alokairua hirian

Gasteizen jarri zen martxan joan den uztailean Euskadin aitzindaria den ekimena (Europar beste hiru tokitan bakarrik dagoena: Kopenhage, Oslo eta Amsterdamen) hirian bizikletak doan alokatzeko. Herritarrek 200 bizikleta dituzte eskura eta haiek erabili ahal izateko NANA erakustea baino ez dute egin behar. Martxarik gabeko bizikletak dira eta gizarte-etxeetan eta polikiroldegietan jaso eta itzultzen dira.

Zerbitzu pilotua da, abendu artekoa, eta goizeko hamarretatik gaueko bederatzia arte. Beste hiri batzuk ere halako zerbitzua eskaintzeko asmoa dute.

Donostian, badira enpresak bizikletak alokatzen dituztenak hirian ibiltzeko. Argibide gehiagotarako: Bici Rent Donosti (943279260).

Bilboko Udaletxeak, berriz, joan den uztailan bisita gidatuak antolatu zituen bizikletan hiriburuan zehar. Ekimenak arrakasta handia izan du eta, antza, hurrengo udan ere errepikatuko dute. Halaber, Itsas Museoren zabalgunean eta udan zehar, 47 bizikleta alokatu ahal izango dira 17:00etatik 21:00etara.

4.- Mugikortasunaren Astea

Gero eta gehiago dira Mugikortasunaren Astea antolatzen duten euskal erakundeak. Aipatu ekitaldia irailaren hirugarren astean izan ohi da. Udal, Aldundi eta Eusko Jaurlaritzak bide publikoa eta bizikleta erabiltzera bultzatutako hainbat ekitaldi antolatzen dute. Disuasio-neurririk ere aplikatzen dira gidarien aurka, bizikletaren erabilera eta oinezkoen zirkulazioa, ahal den heinean, errazteko asmoz.

5.- Bestelako ekimenak

Gallartako Meatzaritzaren Museora (Abanto) bizikletan doazenak doan du sarrera. Bada, gainera, Muskiz, Portugalete eta Trapagaran lotzen dituen bide-gorria eta bizikletentzako aparkalekua ere badago.

Bilboko hamabi Hotelek abian jarri dute ehun bizikleta mailegatzeko ekimena hiria bizikletaz ikusi nahi duten bezero guztiei.

Eranskina

Helbide eta telefono baliagarriak:

Eusko Jaurlaritza: www.euskadi.net

Hiriko Txirrindularien Bilboko Elkartea: www.bizizbizi.org

Hiriko Txirrindularien Donostiako Elkartea: www.kalapie.org

Hiriko Txirrindularien Gasteizko Elkartea: www.pagina.de/bizikleteroak

Bizikletaren defentsarako Kordinakundea: www.conbici.org

Bizikletaz doazen mezulariak: Oraintxe Ekomensajer@s

BilboTelefonia: 944 154 1999; Faxe: 944 339 256

Posta elektronikoa: agiantza@jet.es

Oraintxe Ekomensajer@s

Iruña - Telefonia: 948 213 033; Faxe: 948 224 412

Posta elektronikoa: bici88@hotmail.com

rlanas@cin.es

Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioa: <http://www.fvascieli.com/index2.html>

Bizkaiko Txirrindulari-Klubak: <http://www.febici.com/clubs.asp>

Gipuzkoako Txirrindulari-Klubak: <http://www.gtxe.net/>

Arabako Txirrindulari-Klubak: <http://www.faciclismo.com/>

